

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresak, ekitaldi eta aisialdiari lotutako aplikazio baten bidez eskaintzen ditu zerbitzuak. Jarduera ekonomikoa aurrera eramateko eta etekinak lortzeko, hainbat diru-iturri erabiliko ditugu, elkarren osagarri direnak.

Lehenengo diru-iturri nagusia **publizitatea** da. Aplikazioaren barruan hainbat iragarki jartzen dira, beste enpresa edo marka batzuenak. Enpresa horiek diru kopuru bat ordaintzen dute beren publizitatea aplikazioan agertzeagatik. Gainera, aplikazioa bera ere publizitatzen da beste aplikazio eta webgune batzuetan, erabiltzaile gehiago erakartzeko. Modu honetan, publizitateak diru-sarrera garrantzitsuak sortuko ditu.

Bigarren diru-iturri garrantzitsua **Premium** zerbitzua da. Erabiltzaileek hilero kuota bat ordaintzen dute zerbitzu honetara sartzeko. Horren truke, hainbat abantaila lortzen dituzte, hala nola **sarreraren beherapenak, promozio bereziak edo erreserba lehentasuna**. Diru-iturri honi esker, enpresak diru-sarrera egonkorrak eta jarraituak lortzen ditu. Premium aukera desberdinak egongo dira, eta erabakitakoaren arabera gehiago edo gutxiago ordaindu beharko da hilero. Hainbat aukera daude:

Premium **indibiduala**: 3,99 € / hilean. Premium **duo**: 6,49 € / hilean. Premium **taldekoa** (4): 8,99 € / hilean.

Beste diru-iturri bat **aplikazioa deskargatzean** lortzen dena da. Plataforma batzuetan, deskarga bakoitzak diru kopuru txiki bat sortzen du. Nahiz eta banakako kopurua txikia izan, deskarga askoren bidez diru-sarrera esanguratsuak lor daitezke. Hasiera batean diru sarrera txikia izan daiteke baina gero eta deskarga gehiago izan, diru gehiago lortuko dugu.

Azkenik, **sarreraren salmentarekin** lotutako diru-iturriak aipatu behar dira. Aplikazioaren bidez saltzen diren sarrera bakoitzetik, ehuneko bat jasoko dugu, hasiera batean %7a izango litzateke. Horrek esan nahi du zenbat eta sarrera gehiago saldu, orduan eta diru gehiago lortuko dugula.

Laburbilduz, enpresaren diru-iturriak hainbat dira: **publizitatea**, **Premium** zerbitzua, aplikazioaren **deskargak** eta **sarreraren** salmenta.

